



**"Nik ez nituen
gauzak behar;
nik maitasuna
behar nuen"**

IURI SANNIKOV



**Gorka Izagirre bere
lehen Olinpiar Jokoen
atarian dago,
sasoitsu, gogotsu
eta oso pozik** / 13

**Urtearen lehen
erdian 209 langabe
gutxiago daude.
Haietatik %58
emakumeak dira** / 6

**Aralar mendiaz
gozatzeko
jarduera
eskaintza zabala
antolatu dute** / 8

**Pandemiak
baldintzatutako
2,4 milioi euroko
aurrekontua onartu
du Etxarrik** / 5

**Porlandegian txanda
kontratua ezartzea
adostu dute
zuzendaritzak
eta langileek** / 8

**'Euskal Liburutegi
Sozial Ibiltaria'
ekimena sortu du
Ander Barandiaran
Ziordiak** / 15

"Hau zen nire familia"

IURII SANNIKOV

Duela 25 urte baino gehiago, zenbait haur errusiarrek lehenengo aldiz ezagutu zuten Sakana. Hamabi urtez etorri ziren. Hemen familia bat dute

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Iurii Sannikov Txebarkul hirian jaio zen, Errusian, eta 37 urte ditu. Duela bederatzi urte Irurtzunen bizi da, baina herria 1993. urteko Gabonetako oporretan ezagutu zuen lehendabiziko aldiz. Serrano-Casado familia ezagutu zuen, bere Irurtzungo familia, bere familia. Lehendabiziko aldi horren ondoren, hamabi uda jarraian etorri zen Irurtzuner. Familia adoptatzen saiatu zen, baina burokraziarekin arazo asko izan zituzten, eta ezin izan zuten Sannikov adoptatu. Turista eta ikasle gisa etortzen saiatu zen, baina ezin. Azkenean, 2012ko neguan, turista gisa etortzea lortu zuen. "Nire helburua ez zen gelditzea, baina bai". Familia elkarrekin egotea lortu zuten, azkenean. Inma Serrano Irurtzungo arreba da.

1993an etorri zinen lehendabiziko aldiz. Nola?

Urte bereko maiatzean ama hil zen, eta amona ni zaintzeko oso zaharra zen. Gobernuak ume-zurztegiara eramaten zituen zaintzailerik ez zuten adingabeak. Orduan, bertan nengoela, lau hilabete pasa zirenean, Gabonetako festak ospatzen ari ginen. Dantzan ari ginen, eta ni nekatu edo aspertu nintzen, eta atera nintzen. Korridorean bi monitoare zeuden, eta telefonoz deitu zuten. Eskualdeko gobernutik deitu omen zuten, eta esan zieten mutil baten eta neska baten izenak behar zituztela, haurrak

Espainiara joateko programa bat zegoelako. Ni beste neska batekin bertan nengoen, eta ez dakit zeruko argia irekiko zen edo zer, baina prozesu guztia mugitzen hasi zen. Bederatzi urte nituen, eta ez nekien Espainia zer zen ere. Oso pozik nengoen. Abenduaren 20an etorri ginen.

Nolakoa izan zen bidaia hura?

Oso bidaia luzea izan zen. Bi eguneko tren bidaia egin genuen Moskura. Ondoren, Moskun, egun bat egon ginen, eta Bartzelonara hegazkina hartu genuen. Bartzelonatik hona iristeko, sei orduko autobus bidaia.

Nolakoa izan zen harrera?

Nik bidaietan oso gaizki pasatzen nuen. Goizeko hiruretan iritsi ginen. Iratxora eramangintuzten. Hamazazpi eta hemeretzi haur inguru etorri ginen, eta guri itxoiten jende asko zegoen. Baina asko. Haur batzuk ateratzeko gogotan zeuden, eta beste batzuk beldurrez. Hainbeste jende zegoen, eta ez genuen inor ezagutzen, gauez... Elkartera eramangintuzten, eta mahai handi baten inguruan eseri gintuzten. Bertan familien artean banatzeko itxoin genuen. Pixka bat ganadua banatzea bezalakoa izan zen. Ok-

"IKUSI NUEN NIRE AMA IZANGO ZENA; EZ NEKIEN ZERGATIK, EMAKUME HORREKIN JOAN NAHI NUEN"

sana deitutako neska batekin nengoen, eta ikusi nuen nire ama izango zena bere alabarekin, nire arrebarekin. Oksanari esan nion hura nire ama izatea nahi nuela, emakume harekin nahi nuela joan. Ez nekien zergatik, hor zeuden guztien artean, emakume horrekin joan nahi nuen. Haur guztiek esaten zuten honekin edo bestearekin joan nahi zutela. Izenak esaten hasi ziren, eta zein familiarekin joan behar ginen. Iurii Sannikov Serrano-Casado familiarekin doa esan zuten, eta nik esaten nuen emakumea gerturatu zen. Nik flipatu nuen. Haiek hartu ninduten, eta etxera eramanez ninduten. Han hasi zen benetako abentura.

Nola moldatu zineten hizkuntzarekin?

Etorri aurretik gaztelaniazko ikastaro bat izan genuen. Baina bederatzi urterekin bi orduko ikastaro bat... Oinarritzko hitzkin eta esaldiekin orri bat eman ziguten ere, baina haurrak ginen. Tolestu, eta poltsikoan sartu genuen. Anekdotak izan zen etxera iritsi nintzenean *ya khochu pit'* eskatzen nuela, edan nahi dut esan nahi duela, baina haiek pisulertzen zuten. Pixa egin nahi nuela uste zuten. Komunera eramaten ninduten. Eta nik ezetz, eta sukaldera bueltatzen ginen. Sukaldean baietz esan, baina esaldia errepikatzean komunera. Azkenean, Inmak edatearen zeinua egin zuen, eta baietz esan nuen. Esnea eman zidaten. Goi-

zaldea zen, aital lanera joan behar zuen...

Pixkanaka ikasten joan zinen?

Ni hitz egiten hasten nintzen, baina gaizki hitz egiten nuen. Eta familiak ez zidan zuzentzen. Elkar ulertzen genuen. Aditzekin ditut arazoak gehienbat. Gaztelaniazko ikastaroak eman genituen ere. Ongi pasatzen genuen. Euskara ikasteko interesa eta kuriositatea neukan ere. Marrazki bizidunak euskaraz ikusten nituen, eta asko gustatzen zitaidan nola entzuten zen euskara. Baina hemengo euskara desberdina iruditzen zitzaidan. Oraindik ikasteko garaiz nago.

INMA: Oso arduratsua izan da beti: ikasle ona, langilea eta beti laguntzeko prest. Amak esaten zion ez zituela gauzak egin behar, eta berak esaten zigun baietz, egin behar zituela.

Lehenengo, Gabonetan etorri zineten; eta gero, udan. Ezta?

Bai. Lehenengo aldia Gabonetan izan zen, bi aste. Udan, bi hilabete. Udan etortzen jarraitu genuen.

Nolakoa izan zen itzulera Errusiara?

Oso gogorra izan zen. Maitasuna hartu genion elkarri. Bi aste bakarrik izan ziren, baina maitasun handia hartu genion elkarri. Maitasuna eta segurtasuna. Baina hasieratik bagenekien itzuli behar ginelako, ez da zure familia oraindik, nolabait esateko. Negar egiten genuen ere. Batzuk ez ziren ondorengo bidaietan itzuli. Zorte txarra izan zuten, gaizki portatu ziren... Hiruk adoptatzeko aukera izan zuten, eta hemen bizi dira. Beste batzuek kontaktua izaten jarraitzen dute, baina ez dute etorri nahi.

I.: Jendeak esaten zigun ea ez zitzaigun oso krudela iruditzen goxoki bat ematea, eta gero, bat-batean, kentzea. Pentsarazi

"ERRUSIARA ITZULTZEA OSO GOGORRA IZAN ZEN; MAITASUN HANDIA HARTU GENUEN"



egiten zigun, baina bizipen hura irabazia zuten. Bazekien hemen familia bat zuela. Baina oso gogorrazen. Herri mailan. Herria osoa joaten ginen plazara agurtzera.

Zer egiten zenuten hemen?

Oso ongi pasatzen genuen. Lehenengo urtean, Gabonetan, etorri ginenean festa bat antolatuta zuten, eta geuk ere kontzertu bat eskaini genuen zinema zaharrean. Bizikletan ibiltzen ginen, udako oporretara hondartzara, La Pinedara, joaten ginen, hemengo igerilekue-tara... Han oso mugatuak geunden. Eta kanpoko igerilekuak... aurretik ez genituen ezagutzen!

Errusiako lagunekin hitz egiten zenutenean, zer esaten zenuten?

Komentatu genuen lehenengo gauza izan zen: nolakoak dira zure gurasoak? Nolakoa da zure familia? Batzuek erloju handiak zeuzkaten, lepokoak... oso ma-



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





Iurii Sannikov, duela 25 urte Errusiatik etorritako haurra, eta Inma Serrano Irurutzungo arreba.

terialistak ziren. Beste batzuk esaten zuten oso zorrotzak zirela. Nik ez nituen gauzak behar; nik maitasuna behar nuen. Hona etortzen ginen ezagutzen ez genuen familia batengana, eta eskertuta egon behar ginela iruditzen zitzaidan. Beraieendako egon behar ginen, eta ez alderantziz. **I.:** Guretako, gure anaia da.

Zergatik erabaki zenuten hartzea?

I.: Gehienbat nire gauza izan zen. Jakin nuen bazegoela elkarte bat Errusiako haurrak ekarri nahi zituen, eta beti hiru anaia eta ni izan gara. Nik esaten nion amari ahizpa bat hartu nahi nuela, elkartasunagatik eta laguntzeagatik. Joan ginenean, esan ziguten mutiko bat izan behar zuela, etxeko haur txikiaren parekoa izan behar zuelako, eta aurrera egin genuen. Gauza zen laguntzea, norbait hartzea. Gurasoek ekonomikoki ahal zuten, eta emozionalki ere on bat egin nahi zuten. Istorio horretan sartu ginen. Etxean oso pozik egon ginen. Berritasuna izan zen ere. Hasieran, pixka bat zaila izan zen elkarbizitza. Gure anaia txikiena jeloskor zegoen, pixka bat. Baina, oro har, oso esperientzia onuragarria izan zen. Zentzu guztietan

lagundu zigun. Hurrengo urtean, gure anaia bat hil zen. Urte hartan ez zen etorri gure gurasoak ez zeudelako indarrarekin, baina hurrengoan, bai. Egoera normalizaten joan ginen. Ez zen justua gure egoeragatik bera ezin etortzea, eta, nik uste, amari asko lagundu ziola aurrera egiten. Azkenean, 30 urterekin etorri zen, eta gure aita alzheimerrak jota zegoen. Gelditzea erabaki zuen, gelditu nahi izan zuelako, baita etxean behar handi bat ikusi zuelako ere. Gure gurasoak zaindu ditu bederatzi urtez, eta, berari esker, aita oso ongi zaindua egon da. Guretako, familiako aingeru zaindaria da. Proiektu oso polita izan zen, eta gauza on asko ekarri zituen. Pena izan zen desagertzea.

Zergatik Errusiako haurrak?

Guri esan ziguten, Espainiako gerra izan zenean, haur asko Uraletara eramane zituztela ber-

tako umezurztegiara errefuxiatuta. Gainera, bazegoen gizon bat elkarte bat sortu zuena haurrak laguntzeko.

I.: Jendeak galdetzen zigun ea Txernobilekoak ziren, eta ez. Haiek Irurtzunera ere, Uharte Arakilera, Lizarrara eta Iruñera, besteak beste, etorri ziren.

Hemen uda pasatzeak han egoteko indarra ematen zizuen?

Iristen ginenean, haur askok inbidia handia izaten zuten, hemendik gauzak eramane genituelako. Nik eramane nuen guztia banatzeko zen. Amak 100 pezeta (0,60 euro) ematen zizkidan igerilekuetara joateko eta bertan gozokiak erosteko. Nik ez nuen ezer erosten eta dirua gordetzen nuen, itzuli aurretik gozokiak erosteko eta haurren artean banatzeko. Baina banatu aurretik lapurtzen zizkidaten. Esaten nien beraieendako zela, guztien artean elkarbanatzeko.

I.: Gure nahia ez zen gauzak betetzea. Oinarrizkoena ematen genion. Gauzak bidaltzen genizkion: arropa, txanoak eta abar. Lehenengo aldian etorri zenean, arimara iritsi zitzaidan eskuz egindako pelutxeak eka-

rri zizkigula. Oraindik nire haurrek dituzte. Haurrek egindako eskulanak ekarri zituen ere, hemen familiek haur horiek ekartzeko. Argazkiak ekarri zituen, eta esaten zigun neskatok horrek edo besteak etorri nahi zuela. Oso gogorra iruditzen zitzaidan.

Etorri ez bazina, nolakoa izanen zen zure bizitza?

Askotan pentsatu dut horretan. Aukera oso handia izan zen. Hemen nola bizi zen ikusteko aukera izan nuen, zer egin behar nuen bizitza on bat izateko. Errusian umezurztegiak haurrak mundura ateratzen direnean, galduta ateratzen dira: ez dakite zer egin, nora joan... Ikasteko aukera dute. Unibertsitate ikasketak edo lanbide heziketa egiteko aukera dute, baina askok ez dute aukera hori hartzen. Botila hartzea erabakitzen dute. Nirekin egondako asko alkoholikoak dira, kartzelan daude edo hil dira. Oso zaila da. Pena handia ematen dit. Umezurztegian ongi bizi ginen, eta nik ikusi nuen ahal zela beste bizitza bat izan. Amak beti esaten zidan hona etortzeko ikasi egin behar nuela, eta, hitz haiei esker, ikasten jarraitzen nuen. Bestela ez zidaten itzultzen utziko. Ikasketak bukatu nituen, eta ez zidaten etortzen uzten. Ikasten jarraitu nuen: unibertsitatera joan nintzen, ingeniarietza ikasi nuen. Baina hemen ez didate konbalditzen. Askok lagundu zidan.

Nolakoa zen umezurtegiako bizitza?

Zortea izan nuen nirearekin. Nire hiriko umezurtegi etxea zen. Hura egokitu zitzaidan. Oso ona zen, eta hezitzaileak ere oso onak ziren. Ez ziguten maitasunik ematen, baina ez ziren hotzak edo zorrotzak. 53 haur geunden, hiru taldetan banatuta. Talde bakoitza familia deitzen zen. Familiak ginen: anai-arrebak. Gure familiagatik borrokatu behar genuen. Baratzea geneukan, eta guztiok laguntzen genuen. Bertako bizitzan moldatzeko oinarrizkoena irakatsi ziguten. Guztirako prestatzen gintuzten, umezurtegitik ateratzen ginenerako.

"AMAK BETI ESATEN ZIDAN ETORTZEKO IKASI EGIN BEHAR NUELA, ETA IKASTEN JARRAITZEN NUEN"

Gehienbat maitasuna behar zenuen, ezta?

Nik beti esaten nuen hau zela nire familia. Nire amaren eta amonaren ondoren, hau zen nire familia. Ama, aita, anaiak eta arreba. Ama eta aita deitzen nien. Elkarri idazten genion. Gutunak idazten genituen! Hilabete bat pasa behar zen gutuna jasotzeko. **I.:** Gutunak errusieratik itzuli behar zizkiguten. Oso pozik jasotzen genituen, baina itzuli behar genituen. Horri esker, Estrella ezagutu genuen, Iruñeko emakume bat. Hark itzultzen zizkigun. Paketeak bidaltzen genituen... Odisea bat zen.

Nola aldatu da Irurtzun?

Askok aldatu da. Lehen, herria txikiagoa zen, eta orain pisu gehiago egin dituzte. Nire adineko haurrak zirenak orain helduak dira, eta batzuk ez ditut ezagutzen. Hitz egiten hasi, eta orduan bai. Ni beti laguntzen saiatzen naiz. Festak bizitzea gustatzen zait.

I.: Herrian gehienek ezagutzen dute; berataz gogoratzen dira. Herrian parte hartzen du.

Adoptatzen saiatu zineten, baina ezin.

I.: Askok mugitu ginen; itxaropen hori izan genuen beti. Arrazoi batengatik edo besteagatik ezin izan genuen. Kointzidentzia batzuk izan ziren. Hemen matrikulatu genuen, ikastera etorri ahal izateko; lan kontratu bat lortu genuen, lanera etortzeko... baina ez zegoen modurik. Eta ez ziguten arrazoia ematen. Behin soldaduska eginda, errazagoa izan zen. Ez dakit non zegoen arazoa: bertako burokrazia, hemengo, edo biak batera. Kontaktuak izaten jarraitu genuen.

Eta sorpresaz agertu zinen?

Nik esan nuen: turista gisa joaten saiatuko naiz, azkeneko aldiz. Bisatua atera genuen, eta Inmari deitu nion galdetzeko ea etor nintekeen. Agian ezin nuen. Deitu nion, eta esan nion ez esateko oraindik inori, artean ez nekielako etortzeko aukera izango nuen. Berak oihukatu zuen: "Ama, etor daiteke!" Pikutara joan zen sorpresa.

I.: Miraria izan zen. Ni erditu berri nengoan, eta aita dagoeneko gaixo zegoen: etxeko egoera ez zen hoberena. Esan zigunean geratu nahi zuela, erantzun zigun berak zaindu nahi zituela. Esan genion oso gogorra zela, eta injustua iruditzen zitzaigun horrekin kargatzea. Baina nahi zuen.



ASTEKOA

JOSUNE GORRITI FERNANDEZ

100 urte, eta ikasten

Behin eta berriz ikasten dugu. Egunero, gauza berriei jabetzen gara, eta geure burua neurtu eta ezagutzen dugu. Marketinean dioten moduan, esperientzia dago gako. Aldiz, badago alde nabaria: marketinean esperientziak onak izan behar dute, bai ala bai, salmenta lortzeko. Horretarako, *wow* eta sorpresa efektuak bilatzen dira. Gizakiok *wow* eta sorpresa horren atzetik igarotzen dugu bizitza. Zoriontasunaren eta arrakastaren bila. Bide honetan, batzuek nahiago dugu erosotasun gunean mantentzea, koltxo ederrarekin, eta beste batzuek, berriz, ezagunegia den tokiko atea zabaldu eta beste aldean zer dagoen ikustera joaten gara. Bizitza ere aukeratzea eta erabakitzea bada ere, zoriarekin topa egiten dugunean, gauzak onak edo txarrak –aurretik deitu gabe– etorri ahal zaizkigula konturatzen gara. Beraz, gauzak datozen heinean ondo hartzean dago giltza. Erresilientea izatea. Zaila da gero askotan onartzea.

Espainiako Estatistika Institutuaren datuen arabera, iaz ehun urteko adina gaintzen zuten pertsonak 17.308 ziren. Horietatik, 13.576 emakumezkoak ziren, eta 3.732 gizasemeak. Adituek diote, mende bat baino gutxiagoko epean, ehun urte bizitzea arrunta izango dela. Zertan pasako dute denbora gure ondorengoek? Beste aro bat zabalduko da gizakion bizialdi luzean: formazioa, lana eta erretiroaz gain, beste garai eta aukera bat ere sortuko da esperientziak pilatzeko. Aldi berean, bizitza-luzera horrek 70 urterekin jubilatzeraz eramango

gaituela ere iragartzen dute adituek, eta hirugarren, laugarren zein bosgarren adinekoak ere ugariagoak izango direla. Jada 60 urtetik gorako pertsonen ezkontzak eta banaketak biderkatu ziren COVID-19aren aurreko hamarkadan; horrelako datuak bizitza luzatzen eta eraldatzen delako ikurra dira. Eta galdera da, denbora plus hori orain eskura dugula esango baligute, zerekin beteko genuke? Harri koxkor berarekin berriz ere ez oztopatzeko gai izango ginateke?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Bada garaia, jar ditzagun denak etxerako bidean!

SARE HERRITARRA ETA ETXERAT

• **Asier Karrera Arenzana (1975-05-12):** 2000. urtean atxilotu zuten Bilbon. Egun Donostiako Martuteneko espetxean dago, 2. gradu. Adingabeko 2 seme-alaba ditu. 21 urte daramatza espetxean eta 30 urteko kondena dauka, kondenaren erdia baino gehiago beteta duenez 3. gradu. egotea dagokio, baina ez du irteera baimenik ere izan.

• **Jon Gurutz Maiza Artola (1950-12-31):** 2007ko uztailean atxilotu zuten Frantzian (Rodez). Egun Lannemezaneko espetxean dago (300 km). Preso gaixo larrien zerrendan aurkitzen da, 71 urte izateaz gain hainbat gaixotasun dituelako. 14 urte daramatza espetxean eta 20 urteko kartzela zigorra du Frantzian.

• **Karlos Apestegia Jaka (1964-02-06):** 1992. urtetik 2013. urtera arte egon zen preso eta 2018. urtean atxilotu zuten berriz. Egun Donostiako Martuteneko espetxean dago 2. gradu. Espetxeratu zuten lehenengo aldian 21 urte egin zituen espetxean eta orain 3 daramatza, 4 urteko kondena dauka eta kondenaren ¼-ak aurreko betetzen dituen baldintzapeko askatasuna dagokio.

• **Luis Mariñelarena Garziandia (1975-12-19):** 2001. urtean atxilotu zuten Eibarren. Egun Dueñaseko espetxean dago (300 km), 2. gradu. 20 urte daramatza espetxean eta 30 urteko kondena dauka, kondenaren erdia baino gehiago beteta duenez 3. gradu. egotea dagokio, baina ez du irteera baimenik ere izan.

• **Juan Ramon Karasatorre Aldaz (1961-10-28):** 2001. urtean atxilotu zuten Frantzian. Frantzian 12 urtez espetxeratua. 2013. urtean Espainiaratu zuten, kondena bikoitza betetzen ari da ez diotelako bi estatuetan betetako zigorra batzen. Egun El Duesoko espetxean dago (200 km) 2. gradu. 20 urte daramatza espetxean eta 30 urteko kondena dauka, kondenaren ¼-ak betetzen dituen baldintzapeko askatasunean egon beharko litzateke.



OBJETIBOTIK

Gabigunea hain urrun al dago?

Altsasuko Santa Engrazia dermian grazia handirik egiten ez duen paisaia dago. Norbaitek plastikozko kanaleta guzti hauek garbigunera eraman beharrean, zelaiaren erdian utzi ditu. Behin garraiatzen hasiz gero, garbiguneraino joatea ez omen da zaila, baina kasu honetan, alferkeriaren edo zerrikeriaren ondorioz, hortxe utzi ditu loreak bailiran.



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Idoia Artieda Larraga

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

BAZKIDEAK





Etzarri Aranazko hiltegiaren eraldaketa gunea egiteko lanak oso aurreratuta daude.

Udalak 2,4 milioi euroko aurrekontua onartu du

Pandemiak baldintzatutako aurrekontuetan 575.000 euro aurreikusi dituzte inbertsioetarako. Kopuru hori gehiago handituko da joan den urteko kontuak itxi eta diruzaintzako gerakinarekin lanak egitea aurreikusi baitute

ETXARRI ARANATZ

Udalaren aurrekontuak "nahiko kontinuitateak" direla zehaztuz hasi du Silvia Marañon Chasco alkateak azalpena. Zehaztu duenez, "pandemiak gauzak nahiko gelditu eta baldintzatu zituen. Horregatik, joan den urtean egin beharreko inbertsio batzuk aurtengo aurrekontuarekin ordainduko dira". COVID-19 gaitzaren eraginak batez ere lanen atzerapena ekarri zuela argitu du alkateak: "ez da diru falta, baizik eta obrarako materialak jasotzea asko kostatu zitzaizela enpresei, langileak aldi baterako enplegu erregulazioan ziztuzten... Obren martxa dextente baldintzatu du horrek. Esaterako, hiltegiako zatikatze gelako lanak egiteko epea luzatu behar izan da". Eskolan galdara ordezkatzeko lanak ere pandemiak harrapatutakoan artean daude.

Aurrekontua 2.400.773,7 eurokoa da. Haietatik 575.319,31 euro inbertsioetarako dira. Aipatu bi lanendako da zatirik handiena: hiltegiako lanak egiteko 250.000 euro bideratu dira eta eskolan pellet edo ezpala erregai gisa darabilen galdara jarri, biltegia eta beste egiteko 118.000 euro bideratu dira. Gainera, udalak zaharkituta zegoen ibilgailu bat ordezkatu eta pick-up erako bat erosi du 32.000 eurotan.

Hiltegiako zatikatze gelako lanak oso aurreratuta daude. Marañonek azaldu duenez, "ahal den azkarren bukatu nahi dugu. Sakanako Garapen Agentzia eta ekoizleak nola kudeatu aztertuta dute, eguneroko martxa zehaztea da falta dena. Baita makineria erostea eta muntatzea ere". Gela urte akaberarako erabilgarri nahi lukete, baina ez du data zehatzik eman nahi izan.

Gehiago

Baso lanak eta abeltzaintza azpiegitura lanak bi urteko aurreikuspenarekin egiten ditu udalak, gero Nafarroako Gobernuari haien finantzaziorako laguntza eskatzeko (inbertsioaren erdia da). Aurtengo udan Ahuntzetxerako bidea konponduko da, beste bide batzuekin batera. Horretarako 45.000 euro daude. Beste 40.000 euro abeltzaintza azpiegiturak hobetzeko izanen dira. Zehazki, Lizarragabengoko behitegi batera daraman bidea konponduko da, hara egunero kamioia joaten baita esnea biltzera.

Energia eraginkortasuna handitu eta argindar kontsumoa murrizteko inbertsioak egiten segituko du udalak, hau da, LED argiak jartzen eta beharrezko argindar koadroak aldatzen. Marañonek azaldu duenez, "gehiena eginda dago, ez da asko falta

aldatzeko. Esaterako, Burunda-bide kalea falta da, LEDak jarri eta koadroa aldatu behar da, zaharkituta dagoelako. Hori egin da, zati txikiak geldituko lirateke aldatzeko". Alkateak azaldu duenez, inbertsioa 80.000 eurokoa izanen da eta erdia dirulaguntza batekin ordainduko dute, izan ere, "2017an IDA Eri eskatu genion dirulaguntza bat orain onartu digute". Bestalde, Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatu zioten San Donato eskolako argiteria LEDegatik ordezkatzeko. 8.288,5 euroko aurrekontua du lanak. Marañonek esan duenez, "Next Generation edo beste laguntza batzuekin egingen da, baina lan hori egingen dugu".

Azkenik, aurten 25 urte bete dituen kanpineko azpiegiturak berritzeko urtero inbertsioak egiteko asmoa du udalak. Alkateak gogorarazi du 2020an igerilekuko ur ihesak konpontzeko lanak egin zituztela. Aurtengoak finantzatzeko dirulaguntzak eskatuko dituzte. Marañonek aurreratu duenez, "jatetxearen eraikinean edo kanpineko zerbitzuak hartzen dituen eraikinean eguzki plakak jarri nahi ditugu. Teknikoek zehaztuko duten zein den kokapen egokiena". Horrekin batera, motor, bizikleta eta patinete elektrikoendako karga puntu bat jarri nahi dute, erabiltzaileei zerbitzua eskaintzeko. Horretara 12.000 euro bideratuko lituzke udalak. Beti ere, dirulaguntza lortuz gero.

Diruzaintza

Gastu araua indarrean zela, udalek dirua inbertsioetara bideratu beharrean zorra pagatzera bideratu behar zuten lehen-tasunez. Diruzaintzako gerakinarekin inbertsioak egiteko jarritako baldintzek ia ezinezko egiten zuten halakorik egitea. Baina Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Lege Organikoan jasotako zerga arauak 2021. eta 2022. urteetan etetea onartu ondoren, udalek gordetako dirua erabiltzeko aukera eman zaie udalei. Marañonek argitu duenez, "oraindik ez ditugu joan den urteko kontuak itxi, baina 2019koak emaitza ona eman zuten eta 2020koak horrela izatea espero dugu. Finantza aldetik, udala oso saneatuta dago, ongi gaude. Eta horrek inbertsioak egiteko aukera ematen digu". Joan den urteko kontuak itxi ondoren, beraz, herrian egin daitezkeen inbertsioak zehaztuko ditu udalak.

Euskara ikasleen laguntzetarako azken egunak

Euskaldundu edo alfabetatu diren sakandar helduak hilaren 31ra arte eskatu dezakete Mank-en

SAKANA

Ekonomia traba izan ez dadin gure hizkuntzaren ikasketarako, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak urteak daramatza euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren sakandarrei dirulaguntzak ematen. Aurten horretarako 25.000 euro ditu. Zerbitzuak diruz lagunduko ditu 2020ko garilaren 1etik aurtengo garagarriaren 30era arte egindako ikastaroen matrikulak.

Euskara ikasten egon diren heldu sakandarrek hilaren 31ra arteko epea dute dirulaguntza eskaera egiteko. Horretarako, honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute: eskabide ofiziala beteta, nortasun agiriaren kopia, erroldatze ziurtagiria, euskaltegiak eginiko asistentziaren edo aprobetxamenduaren ziurtagiria, matrikularen ordainagiria eta aitortpena, arrazoi beragatik beste erakundeek emandako dirulaguntza guztiena eta, hala badagokio, kontzesioari dagokion ebazpenaren kopia erantsiko da. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak honakoak dira: diruz lagundutako ikastaroaren %80an parte hartu duela frogatzea, Sakanan erroldatuta egotea eta Mank-ekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea.

Kaixo
Kafetegia- Jatetxea

Entsaladak
Errazioak
Pizzak
Ogitartekoak
Hanburesak

Eguneko menua eta
menu bereziak

García Ximenez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restaurantekaixo.com

kaxeta
LIBURUDENDA

Enkargatu hemen
testuliburuak,
utzi dena
gure kontu

Erabili musukoa eta mantendu distantziak

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Txalaparta

Erabili musukoa eta mantendu distantziak

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

209 langabe gutxiago aurten

Lana eskatzen duten sakandarren kopurua 1.192 izatetik 983 izatera pasa da urte erdian, 17,53 puntuko jaitsiera. Langabeen %58,09 (571) emakumezkoak dira eta %41,91 (412) gizonezkoak. Langabe gehienek (%51,68) 45 urte edo gehiago dituzte

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Pandemiaren urteak, 2020ak, 305 langabe gehiago utzi zituen ibarrean. Aurtengo ilbeltzaren 1etik garagarriaren 30era langabeziak behera egin du eta 209 sakandar gutxiago daude lan eskatzaileen artean. Hala ere, langabeziaren lehen seihilabetekoaren joera ez da beti beherakoa izan. Ilbeltzean eta otsailean gora egin zuen (64 gehiago). Baina ordutik langabeen kopuruak behera egin zuen, lau hilabetetan 273 langabe gutxiago, 983an geldituz kopurua garagarriaren 30ean.

Generoari erreparatuta langabe sakandarren %58,09 emakumezkoak dira eta gainontzeko %41,91 gizonezkoak. Urte erdian emakumezkoen langabeziak 3,06 puntu egin du gora. Emakumezkoen langabezia handitu denez, generoen artean dagoen aldea ere zabaltzen da: ilbeltzeko lehen egunean aldea 10,06 puntukoa zen, garagarriaren akaberan 16,18 puntukoa da, ordea.

Adina kontuan hartuta, langabe kopuru handiena 45 urte edo gehiago dituztenen artean dago, %51,68 (508). Kolektibo horren ehunekoa sei hilabetetan 3,53 puntu handitu da, nahiz eta lan-

gabeziaren jaitsieragatik kopuruan 66 behera egin. Lan merkatura sartu nahi luketen pertsonen bigarren adin tarte 25 eta 44 urte artekoena da, %38,15 (375). Portzentajeen talde horrekin 1,7 puntu egin du behera eta 100 langabe gutxiago hartzen ditu. Eta, azkenik, 25 urtez azpikoak daude. Haien langabezia %10,17 (100) da. Urte hasieratik 1,83 puntu egin du behera eta 43 gazte gutxiago daude lan eskatzaileen zerrendan. Sakandarrak Nafarroako populazioaren %3,06 gara, eta ibarrean herrialdeko langabeziaren %2,7 dugu.

Kontratazioa

Sakandarrek lehen sei hilekoan 3.041 kontratu sinatu dituzte. 2020an 6.405 izan ziren. Langabezia datuetan generoen arteko aldea 16,18 puntukoa da, baina kontratuetan ez dago alderik: emakumezkoek 1.521 kontratu sinatu dituzte aurten, eta gizonezkoek bat gutxiago.

Ibarrean sinatu diren kontratuak %90,75 (2.760) hasieratik aldi baterakoak ziren. Epe berean mugagabe bihurtu dira kontratuak %5,32 (162) eta, azkenik, hasieratik mugagabeko kontra-


tuarekin hasitakoak %3,91 (119) izan dira. Sektoreei dagokienez, zerbitzuen sektorean sinatu dira lehen urte erdiko kontratuak %52,58 (1.599). Sakanako kontratazioaren beste motorra industria da: %42,09 (1.280). Eraikuntzari lotutako kontratuak %4,14 (126) izan dira eta, azkenik, lehen sektorerako langileen kontratuak %1,18 (36) izan dira.

Herriei erreparatuta, Sakanako kontratu guztien %31,4 (955) altsasuarrek sinatu zituzten. Bestetik, irurtzundarren sinadura dute kontratuak %21,9k (666). Etxarriarrek kontratuak %9,47 (288) sinatu dituzte. Lau herri daude kontratuak %6 eta 7,5 artean: Arbizu %7,27 (221), Uharte Arakil %7,23 (220), Lakuntza %6,87 (209) eta Olatzagutia %6,35 (193). Urdiaindarren sinadura kontratuak %5,89n (179) dago. Beste sei udalerritako kontratazio kopuruak %1,5aren azpitik daude: Arakil %1,48 (45), Ziordia %0,76 (23), Ergoiena %0,53 (16), Bakaiku %0,39 (12) eta Irañeta eta Arruazu %0,23 (7). Iturmendik aipamen berezia behar du: lehen sei hilekoan iturmendi batek berak ere ez du lan kontratu bat sinatu.


2021ko lehen seihilabetekoaren langabezia Sakanan




Langabezia adinaren arabera 2021eko garagartzaroan



Langabezia sektoreka 2021eko garagartzaroan



2021ko lehen seihilabetekoaren kontratuak sektorearen arabera



2021ko lehen seihilabetekoaren langabezia herrika





agur
plástico
adiós

#AGURPLASTIKOA

Ez da laster arte bat, inoiz ez arte bat baizik.

2021EKO UZTAILAREN 3TIK AURRERA, DEBEKATUTA
DAGO ERABILERA BAKARREKO PLASTIKOAK ETA
BIRZIKLATU EZIN DIREN MATERIALEZ EGINDAKO
MONODOSIAK EDO KAPSULAK SALTZEA.

Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko
14/2018 Foru Legea, 2018ko ekainaren 18koa.



Agurtzen ditugun
produktu guztiak
eta bere alternatiba
jasangarriak
ezagutu.

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Udan ere Aralarrek erakargarri asko ditu

Natur inguruneaz aparte, antolatutako jardueratan parte hartzeko aukera izanen da: natur balioak ezagutzeko bisita gidatuak, mendi ibilaldiak, orientazio ibilaldia, ipar martxa, izar behaketak, baso bainuak edota Mendukiloko lezera bisita

SAKANA

Bosgarren urtez jarraian, Sakana Garapen Agentziak, Aralar Elkartek eta Plazaola Turismo Partzuergoak jarduera programa antolatu dute. Bertako enprekin elkarlanean egin dute, Aralar ezagutarazteko eta "ahalik eta jende gehien erakartzeko asmoarekin, batez ere, gure lurraldera bisitan etortzen direnak, horiek ere gure eskualde, turismo helmuga gisa sustatu eta promozionatu dezaten".

Bisita gidatuen bidez Aralar ko natura balioak, bertakoen erabilera eta ohiturazko ustiapenak eta etnografia eta kultura ezagutaraziko dira, baita natura eta ingurumen praktika onei esker zaintzea eta sentsibilizazioa sustatzea. Mirua enpresaren eskaintza da: Etxarriko haritz zaharren ibilbidea, Oderizko trikuharrien ibilbidea, Aralar ko paisaiak eta trikuharriak, Arkuak eta Aralar ko begiratokiak eta Aralar ko hegaztiak ezagutzea. Informazio gehiago www.mirua.com-en. Eta Eduka Naturaren eskaintza da: mendi ibilaldia eta ipar martxa Aralarren, orientazioa lagunekin eta familian Aralarren, Aralar mendi magikoa eta orientazioa Aralar ko magalean. Informazioa eta izen ematea www.educanatura.com.



Egiarretan dagoen Itxasperi ermitak izarren behaketa hartuko du.

Izar behaketak egingen dira Itxasperi ermitan eta Aralar ko santutegian. Astronomia behaketarako teleskopio indartsuak jarriko dituzte eta astronomian aditua den dibulgatzaile profesionala izanen dute aldamenean parte hartzaileak. Konstelazioak, haiek gordetzen duten mitologiako istorioak, izarren laguntzaz orientatzea eta beste hainbat gauza jakingarri ikasteko aukera izanen da behaketaren bidez. Informazioa eta izen ematea honako web orrian: www.observarelcielo.com.

Baso bainuen bidez Aralarren ongizate esperientzia bizitzeko aukera izanen da. Erreserbak egiteko www.itziarinsausti.com wen orrira jo.

Ipar martxa praktikatzan hasteko aukera izanen da Lata-sako Biltegian. Gehiago jakin nahi dueneak www.facebook.com/Biltegia/ jo dezake.

Mendukiloko lezeak familiarteko bisita desberdinak hartuko ditu: fauna tailerra eta esploratzaileen bisita. Informazioa eta erreserbak www.mendukilo.com webgunean.



Porlandegiko langileak ez dira zubian geldituko eta lanera joanen dira.

Porlandegian txanda kontratua ezartzea adostu dute

Langileen batzarrak aurreakordioari buruzko iritzia gaur, 14:00etan, emanen du. ELAk eta CCOOk sinatu dute

OLATZAGUTIA

Cementos Portland Valderriva-seko Olatzagutiko porlandegiko zuzendaritzak eta enpresa batzordeak akordioa lortu zuten herenegun. Aldeek adostutakoaren arabera, txanda-kontraturako aukera izanen dute langile guztiek etorkizunean. Legediak arautzen duen modu berean jasoa gelditu da aukera hori enpresako lan hitzarmenean, anexo gisa. Dagoeneko indarrean da erabakia. Akordioa ELAk eta CCOOk sinatu dute, ez, ordea, UGTk (5, 1 eta 3 ordezkari dituzte hurrenez hurren). Gaur, 14:00etan, porlandegiko langileen batzarra egingen da eta negoziazio mahaian lortutakoa egoki jotzen duten adieraziko dute.

Lan hitzarmena negoziatzera-koan, zuzendaritzak enpresa batzordeari jakinarazi zion gas-tua ekar zezakeen neurririk ez zuela onartuko, ez soldata igoe-

rarik ez bestelakorik. Langileen ordezkarien hasierako asmoa beste bat bazen ere, onartu egin zuten. Baina langile guztiendako onuragarria izanen zen eta, printzipioz, enpresarendako kosturik ez duen txanda-kontratua enpresa hitzarmenean jasotzea eskatu zuten. Zuzendaritzak ezetz erantzun zuen, eta, ELAk deituta, joan den astean greba egin zuten langileek. Eta akordiorik ez bazegoen, heldu den astean greba mugagabea hasiko zen porlandegian.

Lortutakoarekin "pozik" dago Juanje Lizarraga Zelaia, ELAko ordezkaria; "orain plantilla guztiak jubilatzeke plana du". Langileen batz besteko adina 56 urtekoa da eta 62 edo 63 urterekin jubilatzeke aukera lukete hainbatek. Gaiari "serio heldu" izanaren garrantzia azpimarratu du Lizarragak, "bestela, ez da ezer lortzen".

Sunsundeguin aldean arteko bilerarik ez da izan

LABek, CCOOk eta ELAk protestak areagotuko dituzten aztertuko dute gaur; lanuzteak aukeretako bat dira

ALTSASU

Sunsundegin langileak goizero 15 minutuko kontzentrazioa egingen ari dira LAB, CCOO eta ELA deituta, UGTk ez du bat egin. Lau arlotan aurrerabideak nahi dituzte: lan segurtasuna, langileen

kategoriak, aurrejubilazioak eta berdintasun plana. Horregatik, "Lan eta etorkizun duina" pankarta zabaltzen dute. Hiru sindikatuetakordezkariek gaur bilera dute aztertzeke mobilizazioak koxka bat gorago igotzea.

Mahai gainean duten proposamena da lanuzteekin hasia edo ez. Onartuko balitz, heldu den astean egunero bi ordu gelditzera deitu lukete: 12:00etatik 14:00etara. Eta egoerak bere horretan jarraitzen balu, hileko azken astean lanuzteak egunero lau ordukoak lirateke: 08:00etatik 10:00etara eta 12:00etatik 14:00etara. Gainera, LAB, CCOO eta ELAko ordezkariak enpresaren egoeraren berri emanez idatzia bidaliko diete Nafarroako Parlamentuan dauden alderdiei.

Txertaketa estrategian aurrera pauso gehiago

Osasunbideak 40 eta 44 urte arteko 444 altsasuar, olatzagutiar eta ziordiar txertatu zituen bigarren dosiarekin. Irurtzango kiroldegian 60 eta 67 urte arteko 533 pertsonak Astrazeceneca txertoaren bigarren dosia jasoko dute. Bestetik, hilaren hasieratik 44 kasu izan dira, azken 32 positiboak garilaren 8tik asteazkenara arte zenbatu zituzten.

Udazkenerako parte hartze prozesua aurreikusitako Arbizon

2019ko irailaz geroztik eskola publiko berria du Arbizuk. Udalak herritarrekin eraikin zaharraren erabilerrari buruzko parte hartze prozesua egin nahi du eta hura dinamizatzeko Elhuyar enpresa kontratatuko du. Parte hartze prozesua irailaren erdi aldean hasi, eta azaroan despedituko da. Informazio guztia irailean etxez etxe zabalduko du udalak.

LIBURU-KLIKA

Uztailaren 1etik
abuztuaren 31ra arte



Liburu-denda laguntzaileak

ALTZUKO-DENDA (ERRATZU)	LIBURUNDA (ALTZASU)
ARKATZ (ALTZASU)	MAIMUR (LEITZA)
ASTITZ (LEITZA)	MARTXUETA (IRURTZUN)
AXULAR (ELIZONDO)	NAFARPRESS (ELIZONDO)
ELUSTONDO (IRURTZUN)	OSTIZ (DOMEZTEBE)
IGONE (BERA)	PURIENEA (BERA)
KAXETA (ETXARRI ARAMATZ)	TELETXEA (LESACA)
LAMBROA (LEKUNBERRI)	XAGU (LESACA)

Eskualdeko liburutegi publikoak

ALTZASU	ELIZONDO	LARRAINTZAR	LESACA
ARBIZU	ETXALAR	LAKUNTZA	OLAZTI
BERA	ETXARRI ARAMATZ	LEKUNBERRI	URDIAIN
DOMEZTEBE	IRURTZUN	LEITZA	ZIORDIA

1 Euskarazko liburu bat hautatu, etxetik edo liburutegitik mailleguan hartuta, eta irakurri.



2 Sare sozialetan (Instagram, Facebook, Twitter, Tik Tok, You Tube edo Twitch) liburu horren inguruko zerbait (alpu bat, gomendio bat, kritika bat, bitxikeria bat) zabaldu, euskaraz. Bideo bat, argazki(muntala) bat edo post bat izan daiteke. Hori bai, ezinbestekoa da liburuaren izenburua garbi ikustea, baita #liburuklika traola ere. Sare sozialik ez badaukazu, e-postaz bidali euskara zerbitzura.



3 Sareetan argitaratu denaren froga e-postaz bidali euskara zerbitzura:

Baztango Udala > euskara@baztan.eus
Bortzirietako Euskara Mankomunitatea > euskara@bortziriak.eus
Malerrekako Mankomunitatea > euskarazerbitzua@malerreka.eus
Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea (Larraunalde) > larbeleareuskaraz@iparmank.eus
Nafarroako Iparraldeko Euskara Mank (Leitzalde) > laga@iparmank.eus
Nafarroako Iparraldeko Euskara Mank (Uitzamalde) > ezubioa@iparmank.eus
Sakanako Mankomunitatea > euskara@sakana-mank.eus

BIDALI



12 URTETIK BEHERAKOA BAZARA, liburuaren protagonistetako baten marrazkia egin edo idatziz beste bukaera bat eman liburuari eta e-postaz bidali euskara zerbitzura.



IRAKURRI
+ ELKARBANATU


%30
MERKEAGO EROSTEKO
OPARI-TXARTELA

Parte-hartzaileei euskarazko liburuak erosteko opari-txartelak helaraziko zaizkie haiek emandako helbidera, eskualdeko liburu-dendetan erabili ahal izateko. Txartel horiek erabiltuta, **liburuak %30 merkeago erosi ahal izanen dituzu** (gehienez ere 15 euroko oparia izanen da liburu bakoitzarekin). Opari-txartelak irailan banatuko dira eta iraila osoan erabili ahal izanen dira. Pertsona bakoitzak 3 opari-txartel jaso ahal izanen ditu gehienez.

Erakunde antolatzaileak



Laguntzailea



Sakanako



pun tuak

guaixe
SAKANAKO ASTERKARGA

ALTSASU
IORTIA

ARBIZU
LONBREN DENDA

ARRUAZU
OSTATUA

BAKAIKU
ESTANKOA

ETXARRI
ARANATZ
BELEIXE IRRATIA

IRURTZUN
PIKUXAR

LAKUNTZA
OGIBERRI OKINDEGIA

LIZARRAGA
BARGAZPI TABERNA

OLAZTI
CLINCKER TABERNA

UHARTE
ARAKIL
MENDINUETA
HARATEGIA

URDIAIN
LOPEZ
DE GOIKOETXEA
HARATEGIA

ZIORDI
UDALETXEA

Egin zaitez bazkide!
Eta etxean jasoko duzu!



948 564 275 | 618 882 675 | admin@guaixe.eus



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 16

LAKUNTZA Gazteendako escape rooma.

Sei eta bederatzi lagun arteko taldeak. Antolatzaileak: Prebentzio zerbitzuak. Gidatzen du: Tramankulu escape room. Izena emateko: 679 534 481 edo 948 406 752.
Egunean zehar, kultur etxean.

IRURTZUN Musika parkean: Hagoan taldearen kontzertua. 20:00etan, parkean.

ALTSASU Tequila's party taldearen kontzertua. 20:00etan, Iortia zabalgunean.

BAKAIKU Bakaiku, casa única film dokumentala diasporatik. 22:00etan, eskolen parkean.

LARUNBATA 17

LIZARRAGA Gazteendako escape rooma.

Sei eta bederatzi lagun arteko taldeak. Antolatzaileak: Prebentzio zerbitzuak. Gidatzen du: Tramankulu escape room. Izena emateko: 679 534 481 edo 948 406 752.
Egunean zehar, kontzeju etxean.

BAKAIKU Plan estrategikoaren jarraipen bilera. 12:00etan, udaletxeko goiko gelan.

ZIORDIA Markelekin elkartasunezko IV. 3X3 saskibaloiturneo. Ondoren, jokalariek profesional baten hitzaldia. 10:00etatik 13:00etara, parkean.

BAKAIKU Pilota partiduak. 18:00etan, pilotalekuan.

ITURMENDI Festak. Elektrokela elektrotzaranga.

Ximonena Gaztetxeak antolatuta. 18:30etik 21:00etara, plazan.

ARBIZU Alaitzen udako kultur egitaraua: Maialen Lujambio eta Jon Maia bertsolarien bertso saioa.

Arbizuko Udalak antolatuta. 19:00etan, plazan.

IGANDEA 18

BAKAIKU Aizkora erakustaldia. 12:00etan, pilotalekuan.

LAKUNTZA Amets taldearen kontzertua. 13:30ean, plazan.

BAKAIKU Pontxa eta Flobin Denak berdin ipuin kontalaria. 19:00etan, eskolen parkean.

ITURMENDI Gamelu Flamenko taldearen kontzertua.

Ximonena Gaztetxeak antolatuta. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 19

ALTSASU Pentsiodun duinen aldeko elkarretaratzea. 12:00etan, Zumalakarregi plazan.

OLAZTI Gazteendako escape rooma.

Sei eta bederatzi lagun arteko taldeak. Antolatzaileak: Prebentzio zerbitzuak. Gidatzen du: Tramankulu escape room. Izena emateko: 616 841 995 edo 948 467 662.
Arratsaldean, kultur etxean.

ASTEARTEA 20

OLAZTI Gazteendako escape rooma.

Sei eta bederatzi lagun arteko taldeak. Antolatzaileak: Prebentzio zerbitzuak. Gidatzen du: Tramankulu escape room. Izena emateko: 616 841 995 edo 948 467 662.
Arratsaldean, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Etxarrin uda bizi. Zinema: Dardara film dokumentala. 22:00etan, plazan.

ALTSASU I. zine txiroa saioa. AGAK antolatuta. 22:00etan, plazan.

ASTEAZKENA 21

ALTSASU Gazteendako escape rooma.

Sei eta bederatzi lagun arteko taldeak. Antolatzaileak: Prebentzio zerbitzuak. Gidatzen du: Tramankulu escape room. Izena emateko: 616 841 995 edo 948 467 662.
16:30ean, 18:00etan eta 19:30ean, Gure Etxean.

IRURTZUN Zinema euskaraz: Ane filmaren emanaldia. 22:00etan, plazan.

OSTEGUNA 22

ALTSASU Gazteendako escape rooma.

Sei eta bederatzi lagun arteko taldeak. Antolatzaileak: Prebentzio zerbitzuak. Gidatzen du: Tramankulu escape room. Izena emateko: 616 841 995 edo 948 467 662.
16:30ean, 18:00etan eta 19:30ean, Gure Etxean.

ALTSASU Salam, Xilipurdi antzerkia. 19:00etan, Dantzaleku igerilekuan.



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Irurtzongo Pikuxar taberna berrian lan egiteko sukaldari bila: Sukaldari lanpostu kontratua eta nomina sektoreko hitzarmenaren lanbide-kategoriaren arabera eskaintzen da. Jarrera proaktiboa, lanean autonomia eta txandaka lan egiteko prestutasuna, beharrezkoak dira. Euskararen ezagutza eta sukaldaritzan esperientzia frogatua baloratuko dira. Interesatuak bidali Cva pikutaberna@gmail.com helbidera. Deialdia hutsik gera liteke hautagaiek espero diren baldintzak betetzen ez badituzte.

IKASTAROA

Adinduendako ariketa fisikoko tailerra: Adindu hauskorren gainbehera

funtzionala eta erorikoak prebenitzeko ariketa fisikoren profesional batek gidatuta. Etxarri Aranazko Osasun Zentroan ostiralean, 16:00etan. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus webgunean.

Oinarritzko gaitasun digitalak doako ikastaroa Irurtzunen: Irailaren 20tik 24ra, goizeko 9:00etatik 14:15era. Kultur etxean. Informazioa eta izen ematea 948 600 412 tfnoan.

OHARRAK

Lakuntzako festetako zapien banaketa: 2020 urtean jaio eta Lakuntzan erroldatuta ez dauden haurrek jaietan zapia jaso nahi badute, Udaletxean izena eman beharko dute, uztailaren 23a baino lehen.

Irurtzunen Udako tailerra euskaraz: Abuztuaren 2tik 13ra, 11:00etatik 13:00etara. 2009 urtetik 2016 urtera bitartean jaiotakoak barne. Bi talde egingen dira A eta D ereduaren banatuta. Izena emateko epea uztailaren 15ean amaitzen da. Martxuetan izena eman eta 20 -ak ere bertan ordaindu. Aizpea elkarteak antolatuta.

Nafarroako Filmotekaren Gure oroimenaren fotogramak ekimena: Nafarroako Ondare Filmografikoa bildu, digitalizatu eta zaintzeko asmoarekin, Filmotekak herritarrei deia egiten die etxean izan dezaketen materiala dokumentatu nahi duelako. Material orok balioa duela jakinarazi nahi dute (kamerak, proiektoreak, aldizkariak, gidoiak, bobinak, VHS, Betacam, DV-

Dak, filmak...) Bi aukera daude materiala uzteko; Gordailua (Epe baterako uzten da, material digitalizatuaren kopia bat ematen zaio gordailugileari, eta nahi duenean berreskura dezake bere materiala artxibotik) eta Dohaintza (Materiala ezin da artxibotik jaso, Artxiboari ematen zaizkio eskubideak, material digitalizatuaren kopia bat ematen zaio dohaintza-emaileari). Galdetu zure herriko liburutegian, han emango dizute informazio gehiago, beraiek egingo dute bitartekari lana eta. Edo deitu Nafarroako Filmotekako Arribora 848 424 750 (filmoteca.archivo@navarra.es) edo Liburutegi Zerbitzura 848 427 784 (cfamarg@navarra.es).

ETB1en "Zurekin Bat" lehiaketa berria: Galde-
ra-erantzun formatuko

saioa izango da. Lau kideko bi talde arituko dira lehiari nor bere ametsa betetzeko asmoz. Egune-
ro jokoan dauden 800 euroak irabazi eta programaren zaku potoloa eramatea izango da. Talde-
kideek (familia, koadrila, lankideak, pisukideak, kirolari taldeko kideak...) haien jakituria neurtzeko aukera izango dute. Lehiaketa astelehenetik ostegunera izango da ikusgai. Izena emateko deitu 618 553 423 edo idatzi zurekinbat@k2000.com helbidera. Animatu eta ez galdu izena emateko aukera!

AHTren kontrako bizi-kleta martxa Iruñatik Abondoko kanpaldiraino: Hiru etapen egingo da; uztailaren 28an Iruñean Etxarri Aranatz, uztailaren 29an Etxarri Aranatz-Etura (Barrundia) eta uztaila-

ren 30ean Etura-Abondo. Eraman beharrekokoak (lo zakua, esterilla, aldatzeko arropa eta kanpaldian gelditu behar denak, behar duena ere) laguntza kamioiak eramango ditu etapen amaieran emateko. Otorduak hiru egunetarako 30 euro, egun baterako 12 euro. Prezio hauetan ez da kanpaldikoa sartzen. Bizikletak Iruñera bueltan eramango dira kamioiez igande arratsaldean, abuztuaren 1ean. Partehartzaileak antolakuntzaren ibilgailuetan bueltatuko dira. Izena emateko 675 613 651 tfnora deitu edo ahtrikeznafarroa@gmail.com helbidera idatzi. Argibide gehiago kanpaldiri buruz <http://noaltavahgtgelditu.blogspot.com> helbidean. iragarki@guaixe.eus www.iragarkilaburak.eus

OROIGARRIA



JAIOTZAK

- Izadi Guruziaga Carrillo, uztailaren 3an Arbizun
- Unax Cambero Esparza, uztailaren 6an Altsasun
- Marko Mutiloa Aletxa, uztailaren 8an Irurtzunen


HERIOTZAK

- Pedro Aizpun Etxaleku, uztailaren 12an Etxeberrin


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 16




Larunbata, 17



Igandea, 18



Astelehena, 19



DUELA 25 URTE...



Dr. Kronismorendako pop-rock lehiaketa

Iñaki Legarra baxu jolea, Xabi gitarra eta ahotsa, Carlos bateria, Asier gitarra eta Mikel perkusioa. Horiek osatzen zuten Dr. Kronismo. Nafarroako Gobernuak antolatutako lehiaketan lehenik haiek grabatutako bi kanta aurkeztu zituzten. Iruñeko taberna batean zuzenean jotzeko aukeratutako 20 taldeetako bat izan zen. Handik sei taldek egin zuten aurrera. Guztiek estudio batean hiruna kanta grabatu ondoen, atzera ere, zuzeneko emanaldia egin eta irabazle izendatu zituzten. 165.000 pezeta (991,67 euro) eta diskoa grabatzeko aukera eskuratu zuten.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”



948 19 70 70



@Grupolrache



Grupolrache



www.tanatoriosirache.es

Udako futbol campusen booma Sakanan

FUTBOLA Mankomunitateko udako futbol campuseko 2 txandak, Osasuna Fundazioko Uharteko campusa eta Lakuntzako Lagun Arteako campuseko 1. txanda despeditu dira. Astelehenean Lagun Arteako 2. txanda eta Osasuna Fundazioko Altsasukoa abiatuko dira

Maidier Betelu Ganboa SAKANA Futbolak arrakasta handia du gurean. Hori ez da kontu berria. Bai ordea udako futbol campusek Sakanan izan duten gorakada eta eskaintza.

Duela urte batzuk soilik Sakanako Mankomunitateak antolatu zuen udako futbol campusa zen udan futboleant trebatzeko

zegoen eskaintza bakarra, baina gutxika aukerak zabaldu dira eta aurten dagoen eskaintza zabalabarmentzekoa izan da.

Ekainaren 23an hasi eta ekainaren 29an despeditu zen Lakuntzako Lagun Arteak antolatutakoudakofutbolcampusarenlehen txanda. 30 neska-mutiko baino gehiago trebatu ziren futboleant

Lagun Arteako futbol koordinatzaile Asier Alegriaren, Adur Kanporen eta beste hainbat monitoren esanetara. Bestalde, Uharteko Arakilek lehenengoz Osasuna Fundazioko futbol campusa hartu zuen, uztaillaren 5etik 9ra. Guztira 23 neska-mutiko aritu ziren futboleant trebatzen, bi multzotan banatuta.

Sakanako Mankomunitateko futbol campusaren lehen txanda uztaillaren 1etik 7ra izan zen, eta bigarrena uztaillaren 8tik 14ra. Bi txandetako monitorea Aitor Lara Zia eta Maalen Beraza Etxarri izan dira, eta gustura aritu dira Dantzalekun. Lehen txandan 18 hurrek parte hartu zuten, eta bigarrenean 26 gaztetxok.

Datorrena

Baina hau ez da bukatu. Astelehenean beste bi futbol campus abiatuko dira. Lehena Lagun Artearen campuseko 2. txanda izango da, eta bigarrena Osasuna Fundazioaren Altsasuko campusa, Dantzalekun. Horretaz gain, futbol campuseko 3. txanda prestatu du Lagun Arteak abuztuaren 16tik 20ra. Eta Sakanan azken orduko beste eskaintzaren bat sortzea ez da baztertzeko.

SASKIBALOA Markelekin 3x3 saskibaloiturneo solidarioa Ziordian

Larunbatean Markelekin 3x3 saskibaloiturneo solidarioa antolatu dute Ziordian. Izena emateko ondoko telefonora hots egin beharko da: 620 064 534 (Jose Ramon). Goizeko 10:00etan hasiko da torneoa, 13:00ak arte, eta hiruko taldeak osatuta jokatu da. 3x3 partidez gain, tiro libreen txapelketa eta hainbat trebetasun buruzko txapelketak jokatu dira, eta, bukatzeko, 13:00etan saskibaloiturneo jokalaritake hitzaldia eskainiko die bertaratuakoei.

Torneoa jokatzen den bitartean hainbat sari zozketatzeko txartelak salduko dira, GNA01 izeneko gaixotasun arraroa duen Markel Carmona Urnietako umearen alde.

Orain arte izandako futbol campusak



Sakanako Mankomunitateko 1. txanda. Uztaillaren 1etik 7ra izan zen, astez, Dantzalekun. 18 neska-mutiko trebatu ziren.



Sakanako Mankomunitateko 2. txanda. Uztaillaren 8tik 14ra izan zen, Dantzalekun. 26 gaztetxo aritu ziren, Lararekin eta Berazarekin.



Osasuna Fundazioko Uharteko Arakilgo campusa. Uztaillaren 5etik 9ra 23 neska-mutikok parte hartu zuten, bi multzotan banatuta.



Lagun Arteako campuseko 1. txanda. Ekainaren 23tik 29ra izan zen, Zelai Berrin. 30 neska-mutiko baino gehiago aritu ziren.

PILOTA Sakandarrak Masters CaixaBank Torneoari ekiteko prest

Asteburu honetan hasiko da udako Masters CaixaBank Torneo, Binakako Txapelketaren antzeko formatua izango duena. Aspek eta Baiko bikote mistoak osatu dituzte torneorako. Ezkurdiak Imazekin osatuko du bikoia, Zabaletak Olaizola II. arekin eta Martijak Urrutikoetxearekin.

Lehen jardunaldia asteburu honetan jokatu da. Gaur, ostirala, Olaizola II.a eta Zabaleta Jaka ordezkatu duen Lasoren eta Tolosaren kontra ariko dira Zaldibarren. Larunbatean Urrutikoetxeak eta Martijak Peña II.a eta Rezusta izango dituzte arerio Zeberion, eta, igandean, Irunen, Ezkurdiak eta Imazek Altuna eta Aranguren.

TRIATLOIA Sakanako XIX. Haur Triatloian izena ematea zabalik

Urdiaingo igerilekuek eta inguruko paraje ederrek hartuko dute Sakanako XIX. Haur Triatloia, uztaillaren 24an. Proba Nafar Kirol Jolasetarako puntuagarria da eta kategoria txikietatik hasita jubenilen mailara bitartean jokatu da, osasun baldintzak beteaz. Izena ematea zabalik dago uztaillaren 19ra arte www.rockthesport.com webgunean.



Sakana Group talde mistoa. UTZITAKOA

Sakana Group mistoa, hirugarren Guijuelon

TXIRRINDULARITZA Burunda klubeko 2 txirrindularirekin talde mistoa osatuta, ongi aritu da Sakana Group

Asteburuan kadeteen mailako 1. Guijueloko Txirrindularitza Itzulia jokatu zen Salamancan, eta bertan Sakana Group-Aralar aritu zen, talde mistoa osatuta. Aralar klubeko 4 txirrindularik, Manex Zufiaurrek, Aritz Oiarbidek, Ion Lizarragak eta Adrian Martinezek, eta Burundako bi txirrindularik, Mikel Regilek eta Iker Agudelok, osatu zuten taldea. "Bi txirrindulari behar genituen, eta Burundakoekin, talde mistoa osatu genuen" azaldu du Sakana Groupeko entrenatzaile Alberto Martinezek. Ekimena pozgarria izan da, Sakana bi klubaren arteko harreman ona erakusten baitu.

Guijuelon egindakoarekin oso kontentu dago Martinez. "Lan ona egin dugu. Bakarkako erlojupekoa oso gogorra zen, eta postu onak lortu genituen, eta lineako lasterketan oraindik lan hobia egin genuen. Esaterako, Adrian Martinez 3. izan zen eta sailkapen orokorrean 6. sailkatu zen. Eta taldeka 3. sailkatu gara, Valverderen eta Puritoren taldeen atzetik. Beraz, ezin dugu gehiago eskatu" nabarmendu du.

Gaur, Iturmendin

Gaur, ostirala, 17:30ean, kadeteen II. Iturmendi Saria jokatu da, 61 kilometroko proba.

"Kirolariondako Olinpiar Jokoak gorenean daude"

GORKA IZAGIRRE INSAUSTI TXIRRINDULARI OLINPIARRA

TXIRRINDULARITZA Igandean Tokioko bidea hartuko du Izagirrek, bere lehen Olinpiar Jokoak izango diren parte hartzeko. Sasoi onean, gogotsu eta pozik dago

Maidar Betelu Ganboa ZIORDIA

Pozik dago Gorka Izagirre. Eta ez da gutxiagorako. Bere lehen-dabiziko Olinpiar Jokoetan parte hartuko du Ziordiko bizilagunak, eta hori kirolari gutxiren esku dago. Olinpiar Jokoetan ariko den bigarren sakandarra izango da, Hodei Mazkieran pista txirrindulari altsasuarraren atzetik (London, 2012). Alejandro Valverderi laguntzea izango da Izagirren egiteko nagusia, baina aukera izanez gero aprobeztatuko duela gauza jakina da. **Olinpiar Jokoetara joatea... Beti izango da pozgarria halako albiste baten berri izatea.**

Bai, oso pozik nago. Azken finean Olinpiar Joko batzuetara joatea ez da askotan gertatzen. Kirolari gisa, Olinpiar Jokoak goiko puntan daude, eta bertan parte hartzea oso pozgarria da. **Kirolaren gorenean daude Olinpiar Jokoak, baina txirrindularitzan Frantziako Tourra ere ez da nolana hikoia. Biak balantzan jarrita, zein aldetara egingo luke?**

Oso ezberdinak dira. Tourra oso garrantzitsua da, baina urtero duzu hor. Olinpiar Jokoak lau urtez behin izaten dira. Egun bateko lasterketa luzea da, mundu mailakoa, lau urtez behin egiten dena. Hori da bere berezitasuna, eta horrek egiten du are eta handiagoa izatea.

Pandemiak Olinpiar Jokoak guztiz baldintzatu ditu. Urte bateko atzerapenarekin jokatu dira, eta publikorik gabe. Beraz, benetako olinpiar giroa ezingo duzue bizi.

Egia esan, pena ematen dizu zalerik gabe aritu behar izateak. Dena den, egoera honetara pixka bat ohiturik hasita gaude txirrindulariak, egoera honetan lasterketa asko egin ditugulako. **Uztailaren 24an jokatu da Olinpiar Jokoen txirrindularitzako lineako lasterketa. Noiz hartuko duzue Tokioko bidea?**

Igandean hartuko dugu hegazkina, eta, hara iritsita, egokitu



Gorka Izagirrek bere lehen Olinpiar Jokoetan parte hartuko du. ASTANA PRO TEAM

"GOGOTSU NAGO, ONGI IKUSTEN DUT NEURE BURUA ETA USTE DUT TOKIORA ONGI IRITSIKO NAIZELA"

beharko dugu. Tokio han dago, 9 orduko aldea dago. 9 ordu asko dira, eta egokitzapen bat egon behar da, gorputzak kolpe handia ez hartzeko. Aldi berean, entrenatzen jarraitu beharra dago, eta hor kudeaketa bat egon behar da. Gauzak ahal den hobekien egin behar dira, **Pascual Monparler hautatzaileak azaldu duenez, Alejandro Valverde izango da liderra. Gainontzekoek –Omar Frailek, Jesus Herradak, Ion Izagirre anaiak eta zuk–, hari lagundu beharko diezue. Baina gaineratu du aukera suertatzen bada, gainontzekoak etapa garaipena borrokatzeko gai zaretela.**

Monparlerrek ekaina hasieran deitu zidanean, hori aipatu zidan. Lehenik eta behin, Alejandroren joango ginela, eta gu lanerako geundela. Eta ez daukat inongo arazorik. Bizitza guztia horretan daraman txirrindularia naiz.

Pozik nago Olinpiar Jokoetan egongo naizelako, eta ahal dudana hobekien egiten saiatuko naiz. **Aukera izanez gero, aprobeztatzen gaude. Ezta, Gorka?**

Lasterketak buelta asko ematen ditu. Nolako gorabeherak dauden ikusi behar da, eta aprobeztatu. **Zure anaia ere Olinpiar Jokoetara doa. Biondako polita izango da.**

Bai. Hau bitxikeria gisa geratuko da. Hala suertatu da, anaia eta biok joango gara, eta gustura. **Valverdek esan du oso pozik dagoela zu zoazelako, zu bere ondoan izateak "asko ematen diola". Laguna eta taldekide bikaina zarela gaineratu du.**

Hori esan du? (kar, kar...). Hala koak entzutea polita da, zer esango dizut. Alejandrok ondo eza gutzen nau. Lau urte eman ditut Movistarren berarekin lasterka; ongi ezagutzen dugu elkar. Lasterketa asko irabazi ditugu elkarrekin, eta berak irabazi dituen askotan hor egon naiz ni, laguntzen. Gezurrik ez du esaten; lagun onak gara, eta hor egongo gara. **Valverdek nabarmendu du ez dela domina bai ala bai lortzeko presio hori gustuko. Olinpiar Jokoak direla eta, ez duela behar baino presio gehiagorik nahi.**

Nahikoa argi esaten du, han egoitea nahikoa presioa dela. Tokioraino joatea, ordu aldaketa... Tourretik zuzenean Tokiora datozei hango nekea pilatuko zaie, eta lasai egon nahiko dute, halako txikikeriatan pentsatu gabe.

Zure anaia Tourrean dago ere. Tourreko burbuila horretatik Olinpiar Jokoetara iristen direnak lehiaketako martxarekin iritsiko dira? Fin? Edo nekabarratuta?

Bai eta ez. Tourrak ematen du, baina kendu ere bai. Posible da ongi heltzea edo neke handiarekin heltzea. Nolanahi ere, ez dira Olinpiar Joko normalak izango. Tourra oso gertu dago, eta horri ordu aldaketa gehituta, bidaia, eta lasterketarako denbora gutxi dagoela... Entrenamenduak eta atsedena ongi uztartu beharko dira. Lan hori ongi egiten jakin eta asmatu egin behar da.

Zu nola zaude? Nola ikusten duzu zeure burua?

Ongi. Hautatzaileak ekaina hasieran esan zidanean Olinpiar Jokoetan aritzeko ni nahi ninduela, Italiako Giroa amaitu berri nengoen, eta ordutik Olinpiar Jokoak prestatzen jardun naiz. Gogotsu nago, ongi-ongi ikusten dut neure burua, eta uste dut Tokiora ongi iritsiko naizela.

200 kilometro pasako lasterketa luzea izanen da Tokiokoa.

Lasterketa gogorra izanen da, 230 kilometrokoa. Horregatik dira ere bereziak Olinpiar Jokoak, 180 kilometroko lasterketa batekin 230 kilometrorako salto handia dagoelako. Baina horretarako prestatzen aritu naiz, eta ongi ikusten dut neure burua.

Hauek izanen dira zure lehendabiziko Olinpiar Jokoak. Behin han egonda tarterik izango duzue beste proba batzuk ikusteko?

Ez. Esango nuke txirrindulariak garelako Herri Olinpikoan ez gauden kirolari bakarrak. Aparte egoten gara. Pena da, baina guk egunero errepidera ateratzen dugu entrenatzera, eta Tokion bertan egonez, handik irtetea odisea bat litzateke. Tokiotik kanpoko hotel batean egongo gara, gure eguneko entrenamenduak, masajeak eta beste egiteko. Eta lehiaketan gurea egin eta gero, etxera itzuliko gara.

Kirolari batendako Olinpiar Jokoen aritzea gorena da, sekulako lorpena da. Ea Tokion zortea alde duzuen.

Eskerrik asko!

Barrutik sortzen den sua

Tor Magoak hamabost urte baino gehiago daramatza magiaren munduan; eta bederatzi urte, mago profesionala izaten. Uztailaren 24an, larunbata, Arbizun izanen da Alaitzen udako programazioaren barruan

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Tor Magoa Aitor Bilbao algortarraren beste aurpegi bat da, jendearen aurrean bere magia erakusteko hartzen duen aurpegia. "Hasteko, janzkeran ikusten da eraldaketa hori. Klean ez nabil mago itxuran jantzita". Eszenatokiaren gainean "apur bat transformatzen da", Dr Jekyll eta Mister Hyden antzera, baina ez da horrenbeste nabaritzen. "Naturaltasunez egin dut eraldaketa. Txikitatik egin dut magia". Uztailaren 24an, larunbata, 19:00etan, Arbizuko plazan, familiarterko ikuskizuna egingen du Tor Magoak.

"Oso txikitatik izan dut gustuko magia. Aititek gauzak egiten zituen. Ez zen magoa, baina txanponak belarri atzetik ateratzen zituen. Horrelako gauzak egiten

zitzen". Harrezkero izan du "grina" hori Bilbaok. "Nagusiagoa izan nintzenean, liburuak irakurtzen hasi nintzen. *Magia Borrás* delakoa ere izan nuen". Magia presente egon da bere bizitzan, baina prozesu luzea izan da ere: "Hasi nintzenean ez zegoen ez magia eskolarik ez youtuberik. Orduan, dena nire kabuz ikasi behar izan nuen". Lehenengo magia jokoak aitona erakutsi zizkion. Geroago, liburutegietara joaten zen magia liburuak bilatzera. Olentzero ere ongi portatzen zela esan du. "Beste mago batzuk ezagutzen hasi nintzen, eta apurka magiaren munduan sartzen hasi nintzen, nire kabuz". Zer edo zer zeukan barruan, "su bat-edo".

Eskolan galdetzen zietenean nagusitan zer izan nahi zuten,

Bilbaok mago izan nahi zuela erantzuten zuen. "Astronauta edo futbolari izan nahi zutela esaten zuten besteek; nik mago izan nahi nuela esaten nuen, eta ez zidan inork sinisten". Itxaropen hori zeukan. Hasieran, etxekoan aurrean magia jokoak egiten zituen; ondoren, lagunaren aurrean emanaldiak egiten hasi zen, tabernetan. Duela hamasei urte inguru, lehenengo ikuskizuna egin zuen. "Bat-batean, herriko jai batzordeetatik deitzen hasi ziren". Bitartean, unibertsitatara joan zen eta enpresa batean lanean hasi zen ere. "Baina beti neukan zer edo zer hori barruan, su hori". Azkenean, saltoa ematea erabaki zuen, duela bederatzi urte. "Ez naiz damutzen, eta benetan pozik bizi naiz magiarekin".



Tor Magoa. UZTITAKOA

Ilusioa

Arbizun uztailaren 24an egingen duen ikuskizuna "familiarra" izanen da. "Ikusle guztiendako magia ikuskizuna". Tor Magoaren emanaldiak parte hartzaileak izan ohi dira, baina egoeratik ezin da ikusleengana hurbildu, ez ikusleak eszenatokira igo. Egoerara egokitu behar izan du: "Bakoitza bere tokian bada ere, saiatzen naiz saio parte hartzaileak egiten". Zerbait bizi da. Hori baita magiaren sekretuetako bat: ilusioa sortzea. "Haurrendako lan egiten denean, ikusten da haur batzuek magian sinisten dutela, beste batzuek dudak dituzte... horrekin jolasten dut".

Garrantzitsuenaren entretenitzea da. "Magiarekin flipatu ahal da, baina ikuskizunak ordubete irauten badu, zerbait gehiago eskaini behar da". Tor Magoak umorea lantzen du ere. "Komunikazioa ezinbestekoa da". Ikuskizunak sortzen hasi zenean, hor ikusi zuen alde zailena: "Nik etxean egin dezaket magia joko bat bost minututan, baina hori ordu batera eraman behar da". Urteekin lortzen den zerbait dela azaldu du. "Denborarekin, publikoaren aurrean askatzen zara". Bi aldetakoa da: "nik ikusleen energia hartzen dut, eta haiek nirea".

Magiarekin hasi zenean, lehenengo jokoak egitean, nagusien artean inpaktua sortzen zuela ikusi zuen. "Ez da bakarrik zer xelebrea den haur hau, baizik eta, nola egin du hori? Jendea-

rengan inpaktua sortzen da". Haurrek zein helduek ongi pasatzen dutela ikusteak Bilbao asebetetzen du. "Energia txute bat da, eta engantxatzen du". Magiaren munduan egotearen alde txarra jendearen ordutegien kontra ibiltzea da: "Nik beti lan egiten dut jendeak lan egiten ez duenean". Alderantziz bizi da, baina "denetara ohitzen zara, eta ongi daramat".

Magia jokoak sortzea oso zaila dela aitortu du Tor Magoak. "Gauzatxo batzuk bai asmatu ditut". Normalean, ikusitakoa eta ikasitakoa bere egiten ditu, "moldatu edo egokitu". Egiten dituen magia trikimailuetatik gehien gustatzen zaiona hau da: "Kutxa batean sartzen naiz, eta kateekin itxi. Kutxa irekitzean, ni ez nago; jendearen artean agertzen naiz". Zoritxarrez, antzoki batean egin behar duen jokoak da, eta, beraz, ezinen du Arbizun egin. Ikusi dituen joaketatik, David Copperfielden telebistan egindako joko bat du gogoan: "Hegan egiten ikusi nuen, eta horrek txunditu ninduen. Gutxi behar banuen magiarekin maitemintzeko, horrek guztiz maitemindu ninduen".

"BAKOITZA BERE TOKIAN BADA ERE, SAIAITZEN NAIZ SAIO PARTE HARTZAILEA EGITEN"



BAZTERRETIK

BELE BELTZAK



Warhammer fantasy

Warhammer Fantasy mundu fantastikoetan oinarritutako beste miniatura joko bat da. Lehen edizioa 1983an argitaratu zen, Games Workshop-en eskutik, Erresuma Batuan. Sortutako Warhammer mundu fantastikoa hain handia izanik, urteekin bideo-jokoak, liburuak eta rol jokoak sortu dituzte.

Jolasteko miniatura aproposak behar dira armadak irudikatzeke. Miniaturak mugitzeko metroa erabiltzen da, eta borroka epaitzeko dadoak. Arau orokorren liburuxka ezinbestekoa da, izan ere, zailtasun handiko

jokoa da. Armada bakoitzak bere gidaliburua dauka (armadak sortzeko erabiltzen direnak). Jokatzeko mahaia 180x120cm-ko neurria izan behar du, eszenografia elementu batzuekin. Txandaka jokatzen da. Hasieran, jokalariek bakoitzak bere armada hedatzen du, eta, txandaka, mahaian zehar armada mugitzen da, besteekin borrokatuz. Helburua erraza da: aurkariaren armada akabatzea.

Egia esan, joko zorrotza, zaila eta garesti xamarra da. Gainera, jokatzeko toki aproposa behar

da. Bele Beltzakeko kideentzat joko berezia da benetan. Gaur egun, ez gara asko jokatzen, baina denok daukagu armada bana etxean ongi gordeta. Armadaxo horiek 10 urte genituelarik sortzen hasi ginen; bakoitzak berea eraiki zuen ahal izan zuen moduan. Nork bere miniaturak muntatu eta margotu behar ditu, eta esparru horretan, joko honekin, asko ikasi dugu. Aipatzekoa da Warhammer Fantasy-ko miniaturak oso ederrak direla, xehetasun asko baitituzte. Hasieran, gaizki moldatzen ginen, baina urteak pasa ahala, jokoa erabat ulertzea lortu dugu.

Seguru nago irakurleren batek, bere etxeko apal batean, joko honen miniaturaren bat izango duela hautsez beteta. Norekin eta nola jokatu jakin gabe. Norbaiti artikulatu txiki honekin jakin-mina pizten bazaio, jarri dadila gurekin harremanetan. Toki ezin hobea dugu jokoaz elkarrekin gozatzeko, armada askorekin eta eszenografia mordo batekin.

ESKERRIK ASKO, GUAIXE!

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Gizarte Langilea hezkuntzaz, Ander Barandiaran Ziordia altsasuarrak Euskal Liburutegi Sozial Ibiltaria deituta ekimen jarri du martxan. Liburuz betetako gurdi batekin ibiltzen da kalez kale, momentuz Iruñeko Alde Zaharrean; baina udan zehar proiektua Nafarroako zenbait herritara hedatu nahi du.

Nola sortu zenuen proiektua?

Egun batean, aitarekin hizketan, liburuen gaira iritsi ginen; eta, ez dakit nola, saltzen ez diren liburuekin zer gertatzen den komentatzen hasi ginen. Zer egingen zen liburu horiekin. Eranztuna izan zen suntsitu egiten zirela. Kolpea izan zen. Gaiari bueltak ematera eraman ninduen horrek. Ezin nuen imajinatu liburuak txikitu edo suntsitu zitezkeenik. Normalena izan arren, azaltzen dutenez, biltegietan lekua behar dute liburu berriak sartzeko; eta, ondorioz, liburuak atera ere egin behar dira. Izugarritzko ondare literarioa dago hor, euskal literaturarena, gainera. Modu batean edo bestean, jendearen eskuetan jarri behar zen. Horrela hasi zen ideia: nola jar daitezke jendearen eta gazteen eskuetan liburu horiek.

Nola lortu dituzu suntsituko zituzten liburu horiek?

Argitaletxeekin kontaktuan jartzeko garaia iritsi zen. Bidalketa orokor bat egin nien euskal argitaletxeei, korreo eta telefonoz. Nire ideia azaldu, eta laguntza eskatu nien.

Liburuak hartu, gurdi batean sartu; eta estetika berezi batekin, kalera atera zinen.

Gurdia Alde Zaharreko herri mugimenduko lagun bidez utzi zidaten, baita biltegia ere. Komunitatearen laguntzarekin. Jantzia duela pare bat urteko inauterietatik neukan. Hasieran behintzat, zerbait deigarria egin behar nuen, jendea deitzeko eta proiektura erakartzeko. Igande batez atera nintzen, izan ere, igandeetako bermutaren ordua nahiko aproposa da: jendea eserita dago, kaleetan jendea dabil... 50 bat libururekin atera nintzen. Gurdia pixka bat beteta ikusteko. Ordutik, hiru aldiz atera naiz.

Zer moduz joan da?

Oso ongi. Lehenengo aldia izan zen arraroena jendearendako: bat-batean tipo bat kalera ateratzea, karro batekin, horrela jantzita, liburuak banatzera. Baina geroago, prentsan atera-

"Liburu hauek nahiko denbora pasa dute gordeta"

ANDER BARANDIARAN ZIORDIA EUSKAL LIBURUTEGI SOZIAL IBILTARIA

Salduko ez diren liburuak hartu, eta kaleetan banatzen ditu altsasuarrak. Helburua eraldaketa sozialerako urratsak ematea da, baita liburuak salbatzea ere



Ander Barandiaran Euskal Liburutegi Sozial Ibiltariarekin Iruñeko kaleetan. UTZITAKOA

tzean, pixkanaka jendea hurbiltzen hasi zen: liburuak ikusi, proiektua ezagutu...

Zenbat liburu eman dituzu?

Liburuen zerrenda eramaten dut. Lehenengo egunean, gutxi

gorabehera, hogeitaz liburu banatu nituen, eta, ondoren, hogeita hamar liburutik gora.

Zer motatako liburuak dira?

Denetarik dago; haurrendako liburuak, komikiak, saiakerak...

Igela argitaletxearenak, denak itzulpenak dira. Euskal idazleen liburuak daude ere, Susarenak eta Txalapartarenak...

Zer hartzen du jendeak?

Gehienbat hartzen dituzte haurrentzako liburuak. Esaten dute: nik etxean baditut liburuak irakurtzeko, baina ilobendako edo lehengusuarendako... Irakasleak ere hurbiltzen zaizkit.

Zer esan dizute ingurukoek?

Hasieran, eroturik nengoela. Ea zer ideia mota zen. Baina, gero, pozik. Lehenengo egunean eskatu nien latsa kentzeko ondoan egoteko. Anaia eta lagunak ondoan nituen poteatzen zuten bitartean. Behintzat inguruan jende ezaguna izateko. Jendearen erantzuna oso ona izan da. Proiektua ezagutzen ez duen jendeak hasieran uste du zerbait saldu nahi dudala, baina azaltzen dudanean eta doan dela esaten dudanean, oso ideia ona iruditzen zaie. Laguntza handia izan dut. **Liburuak doan har daitezke, baina zer baldintzarekin?**

Liburuak doan dira, baina nik eskatzen dut konpromiso bat. Ez dut kontrolatzen, baina jendearen fede onean sinisten dut. Egunean, gehienez, bi liburu har daitezke, bat norberarendako eta bestea norbaiti oparitzeko. Baina eskatzen dut, behin liburu hori irakurrita, beste norbaiti pasatzea edo berriz gurdira ekartzea. Liburu hauek nahiko denbora pasa dute gordeta. Ez daitezela

berriz apal batean edo mesanotxean gelditu. Mugitu daitezela. **Jendeak etxean dituen liburuak gurdira eraman ditzake?**

Printzipioz, hori ez da ideia; ideia da irteera ematea suntsitzeko arriskuan dauden liburu horiei. Baina baten batek ekarri dizkit, eta hartu ditut. Bestela, esaten diet ondo-koari emateko, gurditik pasa gabe. **Posible litzateke liburu horiek berriz argitaratu behar izatea?**

Oso polita litzateke hori. Gure inguruan ezagunak dira bi edo hiru idazle, eta are gehiago euskal literaturan. Batez ere gazteok idazle gutxi batzuk ezagutzen ditugu, baina badaude liburu asko hain ezagunak ez direnak eta oso interesgarriak direnak. Nik zerrenda hori daramat gero argitaletxeei esateko: liburu honetatik hartu dira hauek guztiak, eta jendeak eskatu dizkit beste hauek. **Zergatik soziala?**

Ez delako bakarrik liburuak banatzea. Helburua beste mota batekoa da: maila batean edo bestean, eraldaketa soziala sortu nahi du. Gazteei bideratuta dago; azken urteotan, gazteok geroz eta alden-duago gaude literaturatik eta irakurketatik, pantailen indarragatik, literaturaren prezioagatik eta beste arrazoiengatik. Orduan, helburua da euskal literatura gazteei eskuragarri egitea eta ezagutzera ematea. Daukagun bonbardaketa guztiarekin, zaila izaten da batzuetan zenbait literatura guregana iristea. Beste helburua da jendearen artean sareak sortzea. Gizarte langilea naiz hezkuntzaz, eta sinisten dut gizarte langile batek sortu behar dituela eraldaketarako baldintzak, eta indartsuena da sare komunitarioa. Liburu bat oparitzen dudanean edo pasatzen dudanean pertsona horrekin konexio bat sortzen duzu; pertsona horrekin erlazioa sortzeko baldintza bat sortzen da. Hor babes sareak eta abar sor daitezke.

Proiektua herriz herri zabaldu nahi duzu.

Nire ahalmenen arabera ari naiz, eta inguruko jendearekin eta beste herrietako jendearekin hizketan. Udan zehar hiru edo lau herritara mugitzea da ideia. **Zein liburu salbatuko zenuke bai ala bai?**

Liburuak bilatzen eta kutzak irekitzen nengoenean, Susako biltegira joan ginen. Aitaren (Alberto Barandiaran) liburu bat aurkitu nuen. Hori bai ala bai salbatu beharrekoa da.



Paula Gaspar Caballero, EuskarAbenturako parte hartzailea.

"Egun batzuetan elkartuko gara"

EuskarAbenturako lehen txandan parte hartu eta "oso gustura" egon ondoren, etxean da olaztiarra. Garilaren 2tik 11ra bitartean Urruñia eta Lekaroz artean ibili ziren gazteak. Baina izan zen gehiagorako aukera ere

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA

1 Zerk erakartzen zaitu EuskarAbenturatik?

Mendira joatea asko gustatzen zait. Horregatik eman nuen ize-na EuskarAbenturan. Eta, gainera, Euskal Herriko beste txokoetako lagun berriak egiteko.

2 Nola jaso zenuten haren berri?

Aurrekoetan egondako batzuk gure klasera etorri ziren. Hitzaldia eman ziguten eta dena azaldu zuten. Eta apuntatu nintzen.

3 EuskarAbenturara joan nahi dutenek aurretik zerbait egin behar izaten dute, ezta?

Bai, lan bat egin eta motibazio gutun bat idatzi behar ditugu. Lana egiteko hiru gai proposatzen dituzte, eta hura egiteko sei modu. Aukeran zeuden gaien artean "plastikoa naturan" gaia aukeratu nuen. Nik bideo bat egin nuen, niretako errazena zelako. Horretarako, Urbasa igo nintzen irudi batzuk hartzera. Gero informazioa bilatu nuen: zenbat plastiko sortzen dugun gizakiok munduan. Zaborra itsasora eta mendira konturatu gabe botatzen dugula eta milioika zabor tona sortzen ditugula kontatu nuen. Ingurumena zaintzearen eta birziklatzearen garrantziaz kontzientzia hartzea azpimarratu niten.

4 Zuk bezala makina bat gaztek aurkeztuko zuten lana eta motibazio gutuna, ezta?

Esan ziguten hirurehun pertsona inguru aurkeztu direla. Haie-tatik ehun eta hogeita parte hartzaile aukeratu dituzte EuskarAbenturako antolatzaileek. Zortea izan nuen eta hautatu ninduten. Baina, ez dizute esaten zergatik hautatu zaituzten. Bakar-bakarrak mezu bat ailegatzeko zaizu jakinarazten dizuna EuskarAbenturarako aukeratua izan zarela. Eta hurrengo paperak egitea da.

5 Aukeratua izatearena momentu pozgarria izanen da, ezta?

Ni joan den urtean aurkeztu nintzen. Martxoan ailegatu zen mezua, eta ordurako ahaztuta nukan. Txundituta gelditu nintzen, baina pozik, bai.

6 Aurten EuskarAbentura desberdina izan da, ezta?

Bai, 60 pertsonako bi txandatan banatu gara. Lapurdin hasi ginen eta Nafarroan bukatu genuen. Lapurdin bost egun egon ginen eta Nafarroan beste horrenbeste. Bestela, hitzaldiak izan ditugu. Esaterako, Kike Amunarriz, Iparraldeko ikasleen Baxoa proba euskaraz egiteko aldarrikapenaz, Lorea Ibarra aktorea...

7 EuskarAbenturaren bereizgarria da ibiltzea. Ibili zarete?

Bai. Etapak egin ditugu, egun guztietan ez, baina gehienetan bai. Agian zazpi edo zortzi etapa. Eta gogorrak. Eguraldiaren arabera izan zen gogortasuna. Egun batzuetan bero handia egiten zuten: 30 gradu, eguzkia, itzalik gabe. Baldintza horietan igo ginen Larrun mendira, 890 metroko desnibela gaindituz. Orduan gogorra egiten zen. Eta beste batzuetan euri asko. Oinetakoek lokatzez beteta bukatu zuten.

8 Gazteen artean, zer moduzko giroa sortzen da?

Oso giro ona. Ongi moldatu gara. Etapen ondoren, gauean, gehienetan lokartu egiten ginen; zeren, azkenean, neka-neka eginda iristen ginen. Baina ondokoekin hitz egiten gelditzen ginen edo beste denda batzuetakoekin. Egun gutxi pasa badira ere harremana mantentzen dugu. Agian, egun batzuetan elkartuko gara.

9 EuskarAbentura aldatu bada pandemiagatik izan da. Nola eraman dituzue neurriak?

Ongi. Musukoarekin. Bi egun lehenago PCRa eginda eta autobusean sartu baino lehen antigeno proba eginda. Bi negatiborekin autobusera sartu, eta Lapurdira. Dena ongi.

10 Aukera bazenu, errepikatuko zenuke?

Dudarik gabe.

11 Irakurle gazteek zergatik probatu beharko lukete?

EuskarAbenturan apuntatzea gomendatzen dizuet. Ongi pasa behar duzu. Gainera, lagunekin.



gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu

f | www.gkomunikazioa.eus

**EMAIOZU
MEREZI DUEN
DISEINUA**

Diseinu korporatiboko, diseinu editorialeko,
ilustrazioko, web diseinuko...
proiektuak burutzen ditugu.
Zure marka, produktu, zerbitzu edo ekitaldi
horren irudiarekin lagunduko dizugu